

## Atutxa II Bizkaiko txapeldun trontza eta aizkoran

10. orrialdea

## Luzetu Barik lehiaketako irabazleak

Igorreko euskerazko film laburren lehiaketako sari banaketako ekitaldia izan zan abenduaren 30ean. Joseba Rodriguezen *Kanteik* lanak jaso eban film onenari saria nagusien kategorian. Gazte mailan, Igorreko ludotekako taldeak jaso eban saria *Irunsi dana* filmagaitik. Ibai Pujanaren *Ametza* filmak egile barrien lanik onenari saria jaso eban eta *Leihook* Arratiako egileen lanik onenari. 13. orrialdea



## Sabin Intxaurrearen omenez Zeanuri Behatokia sortu dabe

12. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 199

2014ko urtailaren 2a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## Agur 2013, ondo etorri 2014

Galapan esan eutsien agur 2013 urteari Igorren eta Lemoan. Igorren, umorez eta mozorrotuta egiten dabe galapan San Silbestre lasterketan.

Lemoan, be lasterketa egon zan urteko azken egunean, Eneko Zamalloa memoria-la, hain zuzen be. Areatzan, Radeitzkyren martxearen konpasetara amaitu eben urtea. Musikea, klasikoagoa ala modernoagoa, herri guztietan egon zan urteari agur esateko.

Gabonetako ekintzak, eskola oporrak irauten dabena irauten dabe eta 2014ko lehenengo

egunak be aisialdia beteteko kirol proba, ikuskizun, txango eta kontzertuz beteta dagoz.

Bedian, Igorren eta Lemoan Errege Kalbagatak egongo dira, Lemoako eta Zeberioko umeak BEC-eko Gabonetako Umeen Parkera egingo dabe txangoa, Arantzazukoak Gasteizeko izotz pista... hainbat ekitaldi antolatu ditue Arratiako udalak eta alkarteak, urte barriari ondo etoria emoteko. 5. orrialdea



Abenduaren 31 ko San Silbestre lasterketan igorrezarrak mozorrotuta.

### ARRATIA

## 2014an udal guztien laguntzea eukiko dau BEGITUK

Arratia Ubide eta Zeberioko hamar udaletako laguntzea jasoko dau BEGITUK 2014an. Arteak lokala ipinten dau eta beste udalak diruz lagunduten dabe; batz beste, 1,6 euro biztanle bako-txeko. 2013n 9 udalek lagundu eben BEGITU, guztira 21.900 euro emonaz.

BEGITU hamabostekariak 6.800 aleko tiradea dauka eta doban bananduten da etxe guztietan. 7. orrialdea

begitu  
arratia ubide zeberio

### ARRATIA

## 2014rako aurrekontua onartu da Mankomunidadean

Mankomunidadeak eskeintzen dituan zerbitzu guztiak eskeintzen jarraituko dau eta plan estrategikoak garatzen. Aurrekontua 2.648.300 eurokoa da. Lanbideren enplegua sustatzeko diru laguntzea handitu egin da eta gizarte preminetarako eta gazteentzako diru partidai eusten deutse aurrekontu honek.

Bardintasunaren Ordenantzea eta etxez etxeko laguntzearen gainekoa ago batez onartu ziran. 5. orrialdea

**E P A**  
Galdakao  
[www.epagaldakao.com](http://www.epagaldakao.com)  
Matrikuletako epea, urtaila osoa.  
Tfn. 94 456 60 98  
Helduen heziketa  
E.P.A.  
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

### ARRATIA

## Abortatzeko eskubidearen alde

Abortua kode penaltik ateratzeko mozinoa onartu da Areatzan eta Igorren. Zeanurin be bozkatu zan mozino hau baina ez zan aurrera atera EAJ-PNVren botoak kontra izan zitualako. Beste udaletan hurrengo asteetan eroango dabe Osoko Bilkuretara. Ruiz Gallardonek abenduaren 20an Espainiako Gobernuko ministroen kontseilura eroan eban haurdunaldiak eteteko legea aldatzeko lege-proposamena. Arratiako feministak lege-proposamen honen kontra Bizkaia mailan egin diran mobilizazioetan hartu dabe parte. 7. orrialdea

publizidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

## IGTIE

ASIAZ LIZTORRA (VESPA VELUTINA)  
ERREGINAK HARRAPATZEKO PROTOKOLOA

Ezinbestekoa da udabarian erregina barriak hartzeako tranpak ipintea, holan erregina "fundatzaile" bakotza harrapatzean habia barri bat egitea ekiditen dogulako. Aurreko udagoienera jaiotako erregina barriak neguparadea amaituta habiatik ateraten dira zezeila amaiera marti hasieran, eta habia barria eraikitari ekin eta jarraian kumaldi barriagaz hasten da, ordutik aurrera erreginea ez da habiatik urteten. Horregaitik da garrantzitsua erreginea kanpokaldean aktibo dagoan sasoi aprobezte bere harrapaketarako, hau da, zezeila, martia eta aprila.

Garrantzi handikoa da sasoi hau

amaitzen danean tranpak kentzea, beste insektu espezie batzuk jausi ez daitezkan, honek biodibersitateari eragin deikion kaltea murriztuz.

Tranpa mota: etxean egindakoa edo komertziala.

Erakargarri mota: etxekoa edo komertziala.


Etxekoa:

1. Liztor jaso barriak eta izoztuta mantendutakoak.

2. Garagardoa, ardoa eta ziropea nahastuta.

3. Argizari fermentau zukua.

Tranpak animaliarik ez zapuztuteko altueran egon behar dira. 100-150 ml erakargarri erabiliko dogu eta 7-15 egunera barritu beharko da.



## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Abenduaren 30etik urtailaren 5era**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

**Urtailaren 6tik 12ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Urtailaren 13tik 19ra**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau

Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Inigo Iruarrizaga.

**Erredakzino taldea:** Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.800 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



## ZEURE BERBEA

### Gure etxe osteko errekearen obrea dala-eta

Areatzan errekearen inguruan egiten dabizen beharren harira puntu batzuk ekarri gura dodaz hona:

1.- Areatzako Agenda 21ak Areatzako ekintza planaren taulan, 6.2 puntuan dino: *Preservar los valores naturales, la biodiversidad y el paisaje del municipio\**. Horren barruan azpipuntu batek holan dino: *Salvaguarda del ámbito paisajístico configurado por el cauce del río y los prados adyacentes\**. Hor dinoanez hori epe laburreko eginbeharra da eta lehenetasun handikoa. Helburu hori aurrera eramateko ekintza zehatzak Areatzako Ekintza Planaren laburpen txostenean datoz eta hor, ostera, agertu be ez da egiten goiko puntu hori. Ez dakit kasualidadea dan ala gurata egindakoa, orain erreka inguruan egiten ari diran obrea aurrera eroan ahal izateko plana kontuan hartu barik. Jakin behar, orduan, zertarako egiten diran Agenda 21eko planak, praktikan aurreikusitako obrai egokitzen badira eta ez alderantziz, beharko leuken moduan, obrak Agenda 21era.

2.- Arduratuten nau landaredia guztia desagertu arazo izanak eta horregaitik azaldu gura dot zergaitik diran hain garrantzitsuak ibaien dinamikearen ondorioz sortutako landare-guneak. Bioaniztasunaren benetako gordelekuak izateaz gainera, sano garrantzitsuak dira erreka inguruen oreka ekologikorako. Honegaitik dira landaredia-guneok hain garrantzitsuak:

2.1.- Bertan ekoizpen primarioa oso altua da.

2.2.- Ingurune lehorraren eta urtarraren arteko elikagaien trukaketa erreguletan dabe, eta hondakin uren arazketa erreztu.

2.3.- Sortzean daben itzalak urren eutrofizazioa galarazoten dau.

2.4.- Uriola kasuan, babes natural eraginkorrek dira.

2.5.- Uretan disolbautako elikagaien sedimentazioa errezten dabe.

2.6.- Ibarretako lur emonkorrai eutsi egiten deutsee.

2.7.- Ibar basoen biotopo desbardinaren ugaritasuna dala eta, bizitza aberastasuna oso altua da. Ibar basoetako bizi aberastasun handia bertako egitura geomorfologiko ugariaren ondorio dala esan daiteke.

2.8.- Paisaje eta estetikeari jago-kinez, balio handiko lekuak dira

eta dibersifikazio elementu garrantzitsuak.

Handia da obra honen inpaktu paisajistiko eta ekologikoa, eta nire eretziz inpaktu negatiboa dauka. Argi dago Areatzako PNK beste era batera ulertuten dauala paisaje kalidadearen kontzeptua ze gure etxe ostekoa, ubide zibilizaua izango da aurrerantzean, ez erreka. Berez erretako arbolak (lizarrak, haltzak...) eta zuhaizkak be danak behera, eta deskuidau ezkeren Txinako arbola ornamentalen batzuk ipiniko dabez, barrez, gero paseoan.

Obra honek agur esan deutso udalak gure errekearen inguruko landarediak sortutako oreka ekologikoari eta bere onura guztiai. Nik ez dakit proiektu honek beste onura batzuk ekarriko deutsezan Areatzako herriari/biztanleai, onura ekologikorik behintzat bat be ez.

ELENE ETXEBARRIA ARTABE

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkeren, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Inarrea



Ginarra arbolatxotik ateratako tresna honek palu kirtenduna dau, eta etxeke edo beste leku bateko zelaietako zikinak garbitzeko erabilten da. Arratian beste era honeetara be esaten dogu: inarra, inerra (inerréa, agoskatuta), inerri, giñarra, giñerra. Itsuski berbeak be gauza bera esan gura dau. Batuaz, erratz edo itsats erabilten dira. Adibidea: "Zelan deituten jago inarreagaz dabilen beharginari?".

## ERETXIA



### LURDES IMAZ

EHIGEko koordinatzailea

### Gurean LOMCErik ez!

2013. urtean zehar, Madrilen hezkuntza lege barria presatzen egoazanean, LOMCEren kontrako hainbat ekimen egin doguz Euskal Herriko ikastetxe eta kaleetan. Orain, fase bari baten sartu gara: legea jadanik onartu da eta baita hasi be beratu martxan ipinteko prozesua. Jadanik Errege Dekretu biren proiektuak (Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoaren oinarriko curriculumak ezartzen dituan eta Oinarriko Lanbide Heziketa arautzen dituan) argitaratu ditu Espainiako Hezkuntza Ministerioak, baita lege barria ezartzeko egutegia be.

Zezeilaren amaiera edo martiaren hasikerarako onartuak izango dira Errege Dekretu horreek eta, LOMCE oinarriko araua izanik, euren dekretuak egitera derrigor-tuta dagoz erkidegoak. Denporarik izan ezean, Errege Dekretuak aplikau beharko dira.

Ez arnasa hartzeako astirik izten: Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. maila (3. mailako kanpo-ebaluaketa barne) eta Oinarriko Lanbide Heziketa ipini beharko dira martxan datorren ikasturtean. Hortik aurrera etenbarik aurrera jarraituko dau ezarpen prozesuak, lege barria guztiz ezarri arte.

EAEko Hezkuntza Sailaren araberaz dago denporarik LOMCE datorren ikasturtean martxan ipinteko, baina ezin gara egutegiari begira geratu gure hezkuntza sistema hankaz gora ipini gura dauan eraso honen aurrean. Aukera hau aprobetxau behar dogu gure hezkuntza sistema indartzeko.

### Behar ez dogun lege atzerakoia

Gainontzeko gizarte gaiakaz egiten dabilen moduan, lege atzerakoia egin dau Espainiako gobernuak hezkuntzarako be: LOMCE legeak 70. hamarkadan hezkuntza sistematik baztertu ziran errebalidak errekuerauko ditu, alde batetik, eta irakas-prozesuaren ikuspegi guztiz tradizionala inposauko dau, soilik irakasgai estankoean oinarritutako sistema ezarritu. Errebaliden bidez lege honen oinarriko helburua lortu gura dau: Estadu osoko ikastetxeetan irakasten dana kontroletea. Egiten ez dauanak zigorra jasoko dau: DBH eta Batxilergoko titulu barik geratuko dira ikasleak.

LOMCE legean ez da berba egiten konpetentzien gainean, eskolan ikasten dana eguneroko bizitza apliketeaz edo bizitzarako hain garrantzitsua dan emozino-hezkuntzaz, esaterako. Ez dago metodologia barririk LOMCEn.

Erlijinoari jagokonez be 90. hamarkadara garoaz LOMCEk, Erlijinoa gainontzeko irakasgaien maila berean ipiniko dau eta, Eleiazak beti eskatu dauan moduan: ebaluau egingo da eta kontuan hartuko da beketarako.

Badirudi be PPriz ez jakola guttan gurasoak ikastetxeetan parte hartzea. Ikerketak argi izten daberen gurasoen parte hartzeak seme-alaben eskola arrakasta hobetuten dauala, eskola kontseiluen erabagi ahalmena errotik kenduko dau LOMCEk. Nork parte hartuko dau ikastetxean bere eretxiak ez badau ezertarako balio izango?

Amaituteko, LOMCEk hobetu gura dituan adierazle batzuetan (eskola-porrota, eskola-ixte goiztiarra...) EAE eta Nafarroa askoz hobeto gagoz, estaduko beste erkidego batzuetan baino.

Garai latzak datoz. Hemendik aurrera alkarlana ezinbestekoa izango da gure hezkuntza sistema babestu eta indartuteko. Hasi gaitezana bada...

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enkargatua  
Batzen gurea

MONDRAGON

**LUMATUTEN****JOSE MARI  
KORTAZAR****Arratiako  
unibersidadea**

**G**aur egun modan dagoa-  
na I + D eta holakoak  
dira. Ikertu, barikuntzak,  
bide barriak... enpresa munduan,  
gazteen hezkuntzan, han eta he-  
men.

Aldaketa itzela izan da urte  
gitxian. Lehen, esperientzia zan  
jakituriaren oinarria. Gaur egun,  
barritasunaren atxakiaz zaharren  
zuhurtziak eukan balioa alperrik  
galtzean itxi dogu.

Denpora neurtuak aukerak zo-  
rroztera eroan gaitu. Ezin danari  
heldu. Baina oraindino badago  
zer ikasi eta nogandik ikasi gure  
Arratia honetan.

Ikasi bizitzaren pisuaz, norabi-  
deaz eta kontraesanaz. Orain  
dala hogeit urte gauza bat esaten  
genduan, eta orain haren kon-  
trakoa defendatzen dogu, gogo  
eta bizitasun berberaz, emon  
dogun zibogaz konturatu barik.  
Baina hor dagoz balizak, gure  
aldaketen testigu isil edo isilduak.

Ikasi gizatasun beharraz. Ez da-  
goz modan. Gure ekintzaren eta  
alkartasunaren helburu bihurtu do-  
guz. Gauzatu, ahaztu dogu, zoritxa-  
rez, oraindino be eragile izan ahal  
dirala. Urteak gora, indarrak behera.  
Baina ez jakituria edo maitasuna.

Ikasi euren euskera bizi, jator,  
geure-geurea. Beharbada belarria  
findu beharko dogu, baina hortxe  
dagoz hamaika kontu eta kantu  
jaso gura dituenentzat.

Ikasi zein izango dan gure etorki-  
zuna. Beharbada horregaitik ez jaku  
hain atsegin. Espilu baten zeregina  
beteten deuskue-eta.

Eta non dago unibersidade hau?  
Ez dozu hegazkinik hartu behar  
bertara joateko. Asti apur bat na-  
hiko jaku. Inbersino zoragarria da.

Bere egoitza nagusia Diman  
dauka, Mankomunidadeko za-  
harren Egoitza. Baditu beste  
extensino bi, honeek pribaduak.  
Bata Diman, Bedian bestea. Eta  
hainbat katedradun herri guztietan  
sakabanatuta, baserri eta pisuetan.  
Pozarren bisitaldi bat hartzeako. Zo-  
riontsu entzunak izateko. Kontuan  
hartuak izateko gogoz. Matrikula  
dobanekoa da. Ikasbideak ugari:  
etorkizuna, euskerea, humanida-  
dea, bizitzaren bueltak...

Eta urte barria izango danez hau  
hartzean dozunean, hona gaurko  
agurra:

Ez eizuz itxi urte barrian  
ardura ta kezka danak,  
beti bezala josiko ditu  
poz, samin, kanta ta penak,  
horrek guztiak batzeko hari  
fedearen salbamena,  
alperrik dogu urtea aldatu  
aldatu barik sistema!

**ZERTZEAN****ITSASO BENEDICTO****BEGI TXINDORRA**

**I**gorreko kaleak euskal kanten inguruan girotuteko asmoagaz sortu  
zan Igorre kantari, taldean abesteko tradizioa berreskuratuteko  
asmoagaz, euskal kantak ahaztu ez daitezkan eta belaunaldi barriak  
be, bere egin dagiezan euskaldunok hain berezkoa daukagun komu-  
nikazino bide jostari hau. Baldorba, Ikusi mendizaleak, Isil-isilik eta  
abar taldean abesteko ehundik gora igorretzar batutea ez da marka  
makala! Eskerrik asko parte hartu dozuen guztioi eta ez ahaztu:

Euskeraz abestu! Euskeraz amestu! Geurea babestu! Euskeraz beti!  
Zu ta ni bizi gara bizi! Euskeraz bizi da eta geugaz bizi bedi, beti!

**Igorreko Euskera Plana**

**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igorre-Blokaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegora Zerbako 101  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** Grupo Sasobide  
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

## ARRATIA

# Mankomunidadeak 2014rako aurrekontuak onartu dauz eta zerbitzu guztiak mantenduko ditu

2014rako aurrekontua 2.648.300 eurokoa da, eta EAJ-PNVren aldeko 10 botogaz eta Bilduren 5 abstentzinogaz onartu zan abenduaren 18ko Osoko Bilkuran.



Mankomunidadearen Igorreko egoitza.

### Erredakzioa

Mankomunidadeak eskeintzen dituan zerbitzu guztiak eskeintzen jarraituko dau eta plan estrategikoak garatzen. Horretarako, udalen ekarpena % 18 handituko da, erakundearen diru laguntzak nabarmen murriztu dira-eta. Bardintasunaren Ordenantza eta etxeko laguntzearen gainekoa be onartu ziran. Honeek biak ago batez.

Erakundeak murrizketa orokorrak egin badabe be, Mankomunidadearen aurrekontua "aurreko ekitaldiko ia bardina" da. Gizarte larrialdie-

tarako eta lan sustapenerako diru partidak mantenduteko ahalegin berezia egin dabe Mankomunidadean. Bilduk egindako alegazioak "kontuan hartu dira eta ez da murrizketarik egingo" arlo bi honeetan, Beinat Anzola Igorreko alkateak BECURI azaldutakoaren arabera.

Lanbidek handitu egin dau enplegua sustatzeko diru laguntzea: "2013ko 52.000 eurotik, aurten go 83.000 euroko zenbatekora pasauko da, hau da, % 59ko hazkundeak eukiko dau. Beste zenbait ekintzaren artean, partida horren barruan sartzean dira bost perso-

na kontratetea sei hilabeterako eta lanaldi osoan, eta ekintzailei aholkuak emoteko eta enpresa barriak sortzeako proiektuak" azaldu dabe Mankomunidadeak.

Gazteria Sailak be bere partideari eusten deutso (80.000 euro inguru) aurten, Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Gaztedi programen bitartez, eta gauza bera pasetan da Gizarte Premiako Laguntzarako partideagaz (125.864 euro).

### Ordenantzak ago batez

Ordenantza bi onartu ziran, danon adostasunagaz abenduaren 18ko Osoko Bilkuran: Arratiako Bardintasunaren Ordenantza eta etxeko laguntzearen gaineko ordenantzearen egokitzapena, hain zuzen be.

### Erakundearen diru murrizketak salatu ditu Bilduk

Bilduk alegazioak egiteko momentuan aurrekontu honetan dagozan murrizketak salatu zituan. Honen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak mankomunidadeari egiten deusnan ekarpena 2014rako % 10 murrizten da, eta Eusko Jaurlaritzak egiten deusnana % 33,3. "Eusko Jaurlaritzak 2012tik 2014ra Arratiako Mankomunitateari egiten deusnan ekarpena % 72,17 (369.784,51€) jaitzi da; eta Foru Aldundiak, murrizketaz gain, ez dau inbertsinorik egiten gure eskualdean (errepideetan, gure herriak daukiezan preminazko lanetan...). Horrek esan gura dau, udalok (arratiar guztiok) ipini beharko dogula Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ipinten ez dabena" dino Bilduk prensa ohar baten.

Mankomunidadeko aurrekontuak egiteko beste jarkera bat be eskatu eban Bilduk. Formazino honen ustez, "udalak ez daukie parte hartzerik, alegazioak aurkeztea baino".

eta ez biolentoak dira" dinoe Jai Batzordetik. Gainera lan taldeak egin dabez eta talde bakoak bere bidea egingo dau, hau da, antolaketa propioa izango dau. Hilean behin batzar orokor bat egingo dabe eta bertan, komunean ipiniko dabe lan talde bakoak egindakoa. Bertan hartuko dira ebatziak adostasunez.

"Egin gura diran jaiak euskaldunak, ekologikoak, jasangarriak, pareki-deak, herrikoiak, ez konpetitiboak



Batzarretan parte hartu dauan igorreztar talde bat.

## IGORRE

# Jai egitaraua barriztuteko 30 lagun inguru batzartu dira

### Erredakzioa

Batzar bi antolatu zituan Igorreko Jai Batzordeak zemendiaren 21ean eta abenduaren 12an jai ereduak hausnartu, egindakoa baloratu eta hobetuteko pausuak adostuteko; eta horretarako behar diran bitartekoak, baliabideak eta funtzionamentua zehaztu dira. Egoerearen diganostikoa egin eben lehenengo saioan eta aurrera begirako plan-gintzea bigarenean.

2014ko jaiak antolatzen hasteko lehenengo batzarra urtailaren 16an izango da. Helburua danon artean antolatutako eta disfrutetako jaiak egitea eta izatea da.

## ARRATIA

# Umeentzako jai giroak dirau urte barriko lehenengo astean

### Erredakzioa

Gabonetako egitarauak urteko lehenengo astea be hartzean dau, eta hainbat dira egunotan egingo diran ekitaldiak. Bolalekura, izotz pistara edo Gabonetako Umeen parketara urtekerak; Erregeen Kabalgatea Bedian, Lemoan eta Igorren, eta Areatzako Bandak Igorren emongo dauan Erregetako kontzertua dira horreetako batzuk.

### Arantzazu

#### Urtailak 2,

15:00etan, urtekerea Max Center-eko bolalekura eta gero zinera.

### Areatza

#### Urtailak 3,

Eskupelota alkarteak antolatua, Banakako trapuzko pelota maratoia 11 urtetik gorakoentzat.

### Artea

#### Urtailak 4,

23:00etan, Babel Covers taldearen kontzertua eta Oihan Vega DJa frontoian.

### Bedia

#### Urtailak 3,

09:30etan, urtekerea Gasteizera izotz pistara.

#### Urtailak 5,

18:00etan, Erregeen Kabalgatea. Aurretik txokolatea bananduko da.



#### Urtailak 7-10,

17:00etatik 20:00etara ludotekan jostailu batzea. Liburutegian.

### Dima

#### Urtailak 2,

19:00etan, Musika Eskolako Gabonetako ekitaldia eleizan.

#### Urtailak 5,

16:00etan, Dimako korua zahar-etxeetan.

### Igorre

#### Urtailak 3,

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen

Parkea eta Zaztapparrakentailerrak. 19:30ean, Areatzako Bandak Erregetako kontzertua. Lasarte Aretan.

#### Urtailak 4,

17:30ean, umeentzako antzerkia *Kibubu*. Lasarte Aretan.

#### Urtailak 5,

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kaletik.

### Lemoa

#### Urtailak 3,

10:30ean, BECeko Umeen Gabonetako Parkera urtekerea 5 urtetik gorakoentzat ludotekan.

#### Urtailak 5,

18:30ean, Parrokia-katekesi taldeak antolatuta, Errege Kabalgatea udaletxean.

### Zeanuri

#### Urtailak 2,

18:00etan, *Tierra prometida* filma Kultur Etxean. Gero, Zeanuriko III. Ipuin Lehiaketaren sari banaketea.

#### Urtailak 3,

18:00etan, pelota eta pala partiduak frontoian.



#### Urtailak 4,

18:00etan, pelota eta pala partiduak frontoian.

### Karabie Gaztetxea

#### Urtailak 2,

19:30ean, Askapeneko brigadistak emondako berbaldia "Venezuela".

#### Urtailak 4,

12:00etan, Harriketarrak Gazte Asanbladak antolatuta, truke azokea plazan.

18:30ean, pintxo lehiaketea Gaztetxean.

#### Urtailak 5,

23:00etan, kontzertua: Stenkeik Band eta "Gaztetxea Kantari" Karabien.

## BEDIA

**Incoesako beharginak barriro eskatu deutsee erakundeai deslokalizazioaren kontra egiteko****Erredakzioa**


Bediako Incoesako beharginak Gasteizko Legebiltzararen aurrean alkarretaratu ziran abenduaren 26an, barriro be erakundeai deslokalizazioaren kontra jarduteko eta Incoesari emondako diru laguntzen gaineko azalpenak eskatzeko.

Zemendiaren 18an Ekonomiarren garapen eta Lehiakortasun sailburuak onartu eban sailak ia milioe bi euro emon eutsala In-

coesari ikerketa eta garapeneko proiektuetarako. LABen arabera, beharginak hainbat bilera eskatu deutsee Arantza Tapia sailburuari jakiteko ikerketa eta garapen proiektuok ze lanlekutan ipini dabezan praktikan.

Beharginak diru hori erakundeai itzultzeko "enpresek Bediako plantaren deslokalizazio asmotan jarraitu ezker" eskatzen dabe eta erakundeai Incoesa ez zarratuteko neurri zehatzak hartzeako.

## IGORRE

**Boleto guztiak saldu ziran Igorreko tonbola solidarioan****Beñat Etxebarriaren kamiseteta.****Erredakzioa**

Sei egunez egon da zabalik urtero Gabon sasoian Igorreko misinolariak laguntzeko egiten dan tonbola solidarioa. Juanita Agirrek Perun eta Maribel Egiluzek Kongon jasoko dabe Igorren batutako diru hau, hango proiektuetan lagunduteko.

Zazpirehun sari inguru emon dau aurten tonboleak, hoguei bat jaso barik geratu badira be. "Badago jentea boleto asko erosi eta etxera eroaten dauzana eta gero ez dana etorten atzera boleto horreekaz, sariak jasotera" azaldu deutso BEGITURI Maribel Salcedo tonbolearen antolatzaileak. Aurten, jaso barik geratu ziran sari horreen artean, Beñat Etxebarria Athletic-eko jokalaria emondako kamiseteta geratu zan. Jentearengan interes handia sortzean dauan saria izanda, kamiseteta zozketatu egin dabe barriro eta Ana Gomez Garbekoari tokau jako. "Oso pozik joan zan kamisetetaz" dino Salcedok. Kamisetetaz batera, lau otzara be zozketatu zituen boletoak erosi eta telefonoa zenbakia emon ebenen artean.

## ARRATIA

**Autobus eta jolasleku begiraleak greba deialdia egin dabe****Erredakzioa**

Eulen eskola-garraio enpresako autobus eta eskolako jolaslekuko begiraleak, grebarako deialdia egin dabe urtailaren 13 eta 14an; 20, 21 eta 22an, eta akordio batera heldu ezean, 27tik aurrera greba mugagabea egiteko. Lan hitzarmenaren indarraldia eta soldaten igoerea negoziatzen dabiz, beste gauza batzuen artean. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuak greba deialdia babesten dabe.

Soldatak 2009-2010 ikasturteetik daukiez izoztuta. "Baina kontratetan gaituen enpresak ez

ditue euren diru sarrerak izoztuak izan, Eusko Jaurilaritzak urtero igo deutseez eta diru sarrerok. Diru hori publikoa da eta enpresetako beharginen artean be banandu beharko litzateke, zuzen-zuzenean enpresen etekinak handitzera joan beharrean" salatuten dabe.

Hitzarmenaren indarraldia 2009-2010 ikasturteetik 2014-2015 ikasturtera, lan erreformatik blindauta geratzea eta soldatetan igoerea, Eskola Jantokietako Hitzarmenaren % 95etik % 97,5eraino heltzea.

Eusko Jaurilaritzari bitartekari lana egitea be eskatzen deutsee beharginak.

**Igorreko ikastetxean egindako konzentrazioa.**

## IGORRE

**Merkatariak Gabonetako otzarak zozketatu ditue****Erredakzioa**

Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME) hiru Gabonetako otzara zozketatu ditu, alkarteko kide diran komertzioetan erosi dabe-

nen artean. Otzaretan komertzio baktokak emondako produktuak dagoz. Aurten, Juan Jose Moreno, Beatriz Olabari Pujana eta Begoña Amuriza Egiluz izan dira saridunak.

**Saridunak AMEko presidentetaz.**

## ARRATIA

**Urte barria eta horoskopoa****Erredakzioa**

Parte hartzea eskasa izan da Gabon Gaubeko menuaren gaineko itaunaren erantzunai jagokienean eta gure irakurleen artean, zein dan joerea adierazoteko, nahikorik ez da izan. Dana dala, sasoi honen inguruko ohitura eta errito txikien gaineko jakinmina daukagu BEGITUN eta oraingoan be urte sasoiari

lotutako itauna egingo deutsegu gure irakurleai.

Urtea hasteko momentuan, txanpan kopakaz topa egitean, urtea zelakoa izango dan pentsetan hasten gara, batez be, ze gauza on ekarriko dituan, eta ia osasuna, dirua eta amodioa gura beste izango dogun hastear dagoan urtean. Hori dala eta, urte hasikeran, askok eta askok, eszeptikoenak be barne, ezin izaten deutsee horoskopari begiratzeko tentazinoari eutsi. Ala bai?

Hauze izango da itauna: 2014ko horoskopoa irakurri dozu? Erantzuteko aukera bi baino ez: bai eta ez.

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak - Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
  
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizioa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 06

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-49-54

**SESOREAK**  
basola Emaldi  
FERRIN ADMINISTRAZIOA  
Abokatuak  
• 620. 57.86.04  
• asierbasola@hotmail.com  
• Bilbao-Zeanuri

**Emilio Goitia banatzaile ofiziala**  
  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabellon (Igorre)

**GARANTXE**  
**Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Baimonak: A1, A, B1, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@evokabernet.net

## ARRATIA

# 2014an, udal guztiak lagunduko dabe BEGITU

Arantzazun, Areatzan, Artean, Bedian, Diman, Igorren, Lemoan, Ubiden, Zeanurin eta Zeberion bananduten da BEGITU, eta bertako informazioa emoten dau euskera hutsean.

### Erredakzioa

Arratia, Ubide eta Zeberio Udalak euskerazko bertoko hedabidea mantendutearen alde egin dabe. Eta gure eremuko 10 herriak lagunduko dabe hamabostekaria 2014an. BEGITUK 6.800 aleko tiradea dauka eta doban bananduten da etxe guztietan.

Orain dala ia 12 urte, BEGITU sortu zanean, udalen laguntza izan eban. Urte askoan ez da holan izan, eta aspaldiko partez, barriro be, gure eremuko udal guztien laguntzea izango dau. Arteak lokala ipinten dau eta bertan dauka erredazioa agerkari honek eta beste udalak diruz lagunduten dabe. Diru laguntzea herritar kopuruaren arabera da; batz bestea, 1,6 euro biztanle bakoitzeko. 2013an, 9 udalek lagundu eban BEGITU, guztira 21.900 euro emonaz, aurrekontuaren % 17,1, hain zuzen be.

Eusko Jauriritzen eta Foru Aldundiaren diru laguntzak, diru

sarrerren % 9,65 eta % 18,7 dira hurrengo hurrengo.

### Norbanakoak be laguntzeko aukerea

Erakundeen diru laguntzak ez dira BEGITU finantzietako diru iturri bakarrak. Publizitateak eta begitu-lagunak be lagunduten dabe hamabostekari honen gastuak kubriduten. Publizitateak sartzean dan dirua, diru sarrerren % 40,2 izan da 2013an.

Ia laurehun, 396 zehazki, begitu-lagun dagoz. Hau da, 396 familia edo norbanakok BEGITURI dirua emotea aukeratu dabe, hori egin barik be, bardin-bardin jaso arren etxean gure hamabostekaria. "Sano baliotsua da hau BEGITU egiten dogunontzat, dirua bera baino harago, suposatzen dauan babesagaitik" dinoe BEGITUKO beharginak.

BEGITUN soldatapean, lanaldi osoa daukien behargin bi dagoz, eta 12 banatzailek banaketako kobretan dabe.

## ARRATIA

# Abortuaren legearen erreformaren kontrako mobilizazioak egin dabez

Espainiako Gobernuaren abortu lege barriaren kontra, protesta eta mobilizazio ugari egon dira egunotan Arratian zein Arratiatik kanpo: manifestazioa Bilbon, itxialdia eta alkarretaratzeak Gurutzetako Ospitalean eta udaletan mozinoak sartu dira, besteak beste.

### Erredakzioa

Arratiako Noka taldea Abortatzeko Eskubidearen aldeko Euskal Herriko Plataforman dago eta legearen kontrako burrukan dihardue Arratiako feministak.

Abenduaren 20an Espainiako Gobernuko ministroen kontseilura eroan eban Alberto Ruiz Gallardon ministroak bere lege proposamena, eta hurrengo egunean, abortu librea aldeko manifestazio jentetsua izan zan Bilbon. Han, Areatzako Emakume Foroak, Nokak eta Arratiako jentek hartu eban parte. PPK Bilbon daukan egoitzaren aurrean alkarretaratu eta Foru Aldundiaren aurrean amaitu zan manifestazioa. "Geure gorputza, geure erabakia" izan zan leloetako bat.

Hurrengo barikuan, hilak 27, ehun bat andra itxi ziran Gurutzetako ospitalean, Ertzaintzak banan-banan atera zituan arte. Hurrengo egunean, alkarretaratazea egin eban ospitale aurrean. "Gurutzetako ospitalea aukeratu dogu, abortua libre doban eta segurantzaren barruan gura dogulako" azaldu eban Anabel Sanz plataformako kideak.

Andrak ebazteko eskubidea bermatzen dauan lege baten aldeko mozinoak aurkezten dabil udaletxeetan mobimentu feminista. Arratian, hiru udalek bozkatu dabe mozinoak, Areatzak, Igorrek eta Zeanurik eta bitan onartu dabe mozinoak, Areatzan eta Igorren, hain zuzen be.

### Mozinoak udaletxetan

Areatzan, Emakumeen Foroak



Gurutzetako ospitalearen kanpokaldean emondako prensurrekoa.

aurkeztuta, abenduaren 13an botatu zan mozinoak eta talde guztiak baiezkoa emonda atera zan aurrera. Igorren be aurrera atera zan EAJ-PNV eta Bilduren aldeko botoakaz eta Igorre Danontzat plataformaren abstentzioagaz. Zeanurin, barriz, ez zan aurrera atera. Hemen, Bilduk aurkeztu eban mozinoak eta EAJ-PNVk kontrako botoa emon eban. EAJ-PNV be Gallardonaren erreformaren kontra egon arren, 2010eko legea baino harago doa mozinoak, eta mozinoari ez deusie baiezkoa emon gura izan jeltzaleak. "2010eko legean konsenso bat lortu zan eta guk 2010eko legea mantendutearen aldekoak gara" esan deutso Rut Martinez zinegotziak BEGITURI.

Hileon, Arratiako beste herri gehienetan bozkatu dabe mozinoak hau. Bedian, barbarako, sarrerea

emon deusie udaletxe erreformaren aurrera, Aitor Sorriketa alkateak konfirmatu dauanaren arabera. Diman be, hurrengo plenoan bozkatu dabela mozinoak adierazo deutso BEGITURI Rafa Ugalde alkateak.

### Kanpaineak jarraituten dau

Euskal Herriko mobimentu feministaren arabera, hurrengo hileetan, ekintza ugari egingo dira lege proposamena onartu ez daiten. Baina lege proposamen honen kontra egindako ekintzak lehendik hasita egoazan. Holan, zemendiaren 24ko martxa morean, arratiarrak abortatzeko eskubidearen aldeko aldarria egin eban. Eta pankartak eta kartelak ipini ditue talde feministak eta andra taldeak Arratian abortu librea eta doban izateko eskubidearen alde.

# begitu

arratia ubide zeberio

## ARRATIA

# Gabon Zaharretan preso eta iheslariak gogoan Arratian

### Irati Urien

Hainbat izan dira Arratiako herrietan presoaren alde egin diran ekintzak. Urtero egiten dan eskualde mailako manifestazioa ez da falta izan tartean. Gabon Zahar egunean berrehun persona inguru batu ziran Igorren, preso eta iheslarien alde. Goiko plazan hasi eta heritik buelta bat emon ostein

Kultur Etxeko plazan amaitu zan manifestazioa.

Ernaiko gazteak prestatutako parodia, bertsoak, Tantz Tanta manifestuaren irakurketea, proiektzioa, "Hator hator" kantetxea, argazki kolektiboa eta txistulariaren laguntzagaz urteroko banangoagaz osotu zan ekitaldia. Hizlariak kontau eban, bakarra da momentu honetan Espainiako kartzeletan dagoan

arratiarra; Iñaki Bilbao da berau, eta Zuerako kartzelan dago. Lemoaztarrak 22 urte beteko ditu preso datorren ekainean. Lapurdin dagoan Ana Petralanda iheslari dimoztarrak, Cabo Verden deportatuta dagoan Tomas Linaza Lemoakoa, eta Ipar Euskal Herrian dagoan Zeanuriko Mariasun Bengoetxea be gogoratu ziran. Hiru honeen omenez antortza bana piztu ziran ekitaldian.

Amairan, urtailaren 11n Bilbon egingo dan mobilizaziora joateko konbitea luzatu jakien hurreratu ziranari. Arratiako Tantz Tanta ekimen desbardinaren argazkiak BEGITUREN webgunean dagoz ikusgai.



Manifestazio amaierako argazkia.

**BATZ 50. URTEURRENA (II)**

# Batz 50 urte

Berrogeta hamar urteak ospatzeko Batzek bere historia jasoten dauan liburua argitaratu dau "Igorren sortua, munduan zehar burua 1963-2013" izeneko. Bertan jasoten danaren laburpentxoia ekarri dau **BEGITUK** orriotara.



**Batzeko lehenengo pabilioia Torrean.**

**Erredakzioa****Jatorria eta sortzaileak**

1962ko zezeilaren 6an, Pedro Zuazo, Jose Ramon Bustinza, Andoni Iza eta Jabi Petralanda Dimakoak; Kepa Etxebarria, Felipe Barrenetxea, Vicente Arrizabalaga, Poli Anzola, Celestino Iriondo eta Pedro Eguzkiza Igorrekoak, Jabi Renteria eta Joseba Azpeitia Bilbokoak eta Esteban Junkera Basaurikoak Batz izango zanaren hazia landatu eben Arratian eta 1963ko abenduaren 21ean Madrilgo kooperatiba erregistroan inskribatu eben Batz.

XX. mendeko erdialdean, arratiar gehienak baseritik bizi ziran. Industria gitxi egoan Arratian, eta garraio publiko bakarra tranbia zan, 1964ra arte egon zan tranbia. Holan, arratiar asko kanpora joan ziran lan bila: Bilbo, Basauri, Galdakao, Zornotza, Durango eta Eibarrera, barbarako.

"Ez dot zehatz gogoratuten baina 1957-1960 urteen artean izango zan. Zapaturu Igorren alkartzan ginan. Gure kuadrilea Kepa Etxebarria, Joseba Azpeitia "Gaba", Felipe Barrenetxea, Poli Anzola, Jabi Renteria eta neuk osotuten genduan. Eleizan eta D. Eusebioaren etxean, alkartzeko lekua aldatu egiten zan, debekatuta egoalako batzartutea. Arratia munduaren ipurdian egoala emoten ebala sarri atertzen zan. Arazoari urtenbide bat topatu behar geuntsala ebatzi genduan eta bilbotarrak, Jabik eta Gabak, kooperatibismoa planteatu eben" dino Celestino Iriondo "Zeles"ek.

Erabagi hau hartu ondoren hasi ziran legeak zer eskatzen eban eta zelan bete pentsetan. Arrasatera joan eta bertan Jose Mari Arizmendarretagaz hartu-emonetan jarri ziran. Honen eretxian Arratia ez zan industria arloan toki

egokiena holako gauza bat aurrea aterateko. "Halan eta guztiz be, laguntza hartu genduan papaleoa egiteko" gogoratzen dau Jose Maria Bergarak.

Kooperatiba bat sortzeako behar ziran baldintza guztiak bete arte, eurek sortutako Arraba izeneko tailer baten hasi ziran lanean. "Ez geunkan beharrik 15entzako eta hasi ginan batzuk beharra euki arte eta 15 bazkide lortu arte Talleres Arraba izenagaz, nahiz eta guretzat kooperatibea izan eta holan funtzionau" dino Bergarak.

Hasikera haretan danetik egiten eben, edozerk balio eban enpresea aurrera ateratzeko.

**Hazkundera eta garapena**

1960 urteetan Batzen mekanizazioak batez be, baina baita be arandelak, sardina latak egiteko trokelak, Aluminios de Galizien-tzako matrizeak, eta abar egiten

ziran.

Apurka-apurka eskariak handitzen joan ziran eta beharra eta beharginak be bai.

1970 urteetan trokelgintzea zan nagusi. Orduan esperientzia eta formazio handiagoko jentea hartzea ebatzi eben. Hasikera baten lan guztiak hartzean zitan Batzek, baina laster berezko eta kalidazko produktu baten premia sentidu eben. Inbersinoak egin ziran: prensa hidraulikoak, mekanikoak, punteatzaileak, fresatzaileak eta neurketarako ekipamentua.

"1979an hasi nintzan hemen eta 65 persona ginan gitxi gorabehera. 1976an orduko MCCek Plan Orokor bat egin eban. Holan trokelgintzan, Fagor Arrasate, Matrici eta Batzen artean banaketea egin zan eta Batzeri trokel txikia egokitu jakon. Sasoi haretan trokel txikiaren ingurua batez be elektronika munduari begira egiten zan. Baina elektronika munduan iraultza sortu zan eta guk egiten genduzan pieza txikiak desagertu egin ziran eta Batz lan barik geratu zan" dino Edorta Aierdik. Baina laster General Motors Zaragozara etorri zan eta horrek bultzatu eban Batz automozino inguruko trokelgintzan sartzea. Holan, Batzek Europako bezero inportanteak hartu-emonak izateko aukerea izan eban eta bigarren mailako bezeroak gitxitzen joan ziran. 80 urteetan Batz trokel progresiboetan espezialistea zan.

1985etik aurrera CAD-CAM sistemak sartu ziran. Diseinu,

**Mende barriagaz**

**batera, barrikuntzea eta dibersifikazioa hasten dira Batzen**

fabrikazio eta kontrol sistemen modernizazioa, etorkizunera begirako apustua izan zan hau, "enpresak jarraitu beharreko lerro estrategikoa". Urte honeetan, General Motors-egaz akordioa egin eben Opel Corsa modeloaren katu egiteko. Kontratu hau inflexino-puntua izan zan, automozino sistemak egiten hasi zan Batz eta, bigarren negozio unidatua sortu eban, Batz Automotive Systems izeneko. Autoentzako konponenteak fabriketan dira arlo honetan.

"90 hamarkadan makinaria eta CAD-CAM erreboluzioa izan zan. Automobilien industria handitu egin zan eta Fagor Ederlan, Matrici eta besteakaz *pool* interesgarria sortu genduan inguruan. Gure estrategia: Batzeko kalidade maila handitzea eta pioneroak izatea CAD-CAM erabilpenean" azaltzen dau Edorta Aierdik.

Urte honeetan, trokelgintzan, bezeroak beste tamaina batzuetara pasetea eskatu eutsien Batzeri eta inbersino handiak egin zituen.

Berrogeta hamar urte honeetan, Batz hazten joan da, eta tailer txikia izatetik 24.000 m<sup>2</sup> baino gehiago dituan enpresea izatera heldu da.

**Egungo negozioa**

Mende barriagaz batera, barrikuntzea eta dibersifikazioa hasten dira Batzen. XXI. mendeko lehenengo hamarkadan Batzek berregituraketea jasan eban, merkaduen aldaketak dirala eta.

General Motors konpainiak lehen proiektu globala esleitu izanaren ondorioz, Batz Automotive Systems-ek globalizazioaren errokea hartu eban 2006. urtearen erdialdean. Batz do Brazil-ek 90eko hamarkadan arrakastarik bako esperientzia bat izan baeban be, kooperatibea gai izan zan Mexiko, Txekiar Errepublika eta Txinako produkzio-erazpen barriari ekiteko. Lehen bi herrialdeetan aurreikusitako hazkundeagaz jarraituten dabe eta Txinan, barriz, sobran gaitu dira hasikerako aurreikuspenak.

"Etorkizunerako baje horrek gure personen prestakuntzea dau oinarri. Edozelan be bajea egiteko ez gagoz bakarrik, gure inguruneke sarea da-eta barrikuntzearen oinarria guretzat: Lanbide Heziketako goi-mailako eskolak eta unibersidadeak eta zentro teknologikoak" dinoe.

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarea.com](http://www.inmobiliarialarea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

**Agirre**  
Pellet eta egur salmenta  
616683613 (Iker)  
[ikerdima@yahoo.es](mailto:ikerdima@yahoo.es)  
Igorreko Industrialdea  
F11-3B

**Berezitu**  
Gluten eta laktosa bako ogi eta gozokiak

Bertan eginda  
Murrizketa Doko gogoko kapritxoak  
Eskasak hartzean dira

Lehendakari Agirre Elorbidea, 11 - Igorre  
Telefonoak 945 737 280 eta 692 316 166  
[www.berezitu.com](http://www.berezitu.com) - [berezitu@hotmail.com](mailto:berezitu@hotmail.com)



Honeek dira Batzen negozio jarduerak:

**Batz Stamping Dies**

1963an, bezeroakaz hartu-emon estuan, Batz Stamping Dies automozinorako erremintak diseinetan, fabriketan, probetan eta mantentze lanak egiten hasi zan. Jakintza oinarri daukan jarduera honen funtsa, "esperientzia luzea eta teknologiaren etenbako hobekuntzea" da.

**Batz Automotive Systems**

1982. urtean Batz Automotive Systems serieko produktuen fabrikazinora bideratutako jarduearegaz hasi zan. "Gaur egun munduan zabaldua dagoan ingeniariatza eta produkzio sareak merkadu globalerako lehiakortasun urtenbideak eskeintzen ditu, bezeroen kontzeptuzko diseinuetatik abiatuta".

**Batz Energy**

2005. urtean, produkzioa dibersifikau eta energia barriztagarrien industriara jo eban Batzek. Horretarako "serieko fabrikazinoaren inguruan geunkan jakintza espezializaua eta konpainiaren gaitasun nagusiak baliatu genduzan". Negozio atal hori eguzki energiaren teknologia konzentretako ispilu-euskarriak eta heliostatoen osagaiak fabriketan hasi zan. Gaur egun, mundu osoan, muntaketa eta mantentze zerbitzuak be eskeintzen ditu.

**Batz Lightweight technologies: FPK**

2010 Batz Lightweight Technologies automozinoaren merkadu globalerako sistema arinak eta seguruak eskeintzen luzaroan lankidetzan jardun ondoren, FPK konpainia Batz Group-egaz alkartu zan. Pisua eta, beraz, CO<sub>2</sub> igorpenak murrizteko material eta teknologia barrien erabileran oinarritutako ahalmen teknologiko propioa bilatzen dau.



Batz gaur egun.



## AIZKOREA / TRONTZEA

**Txapelak Atutxarentzat Bizkaiko Trontza eta Aizkora Txapelketetan****Irati Urien**

Bizkaiko Aizkolari Txapelketako Lehen Mailako finala irabazi eban Aitzol Atutxak Bilboko San Tomasetan. Bigarren egin eban Aritz Irazabal gazteari zazpi minutu pasako aldea atera eutsan, 24' 19" behar izan ebazan Dimakoak bere beharra amaituteko. Lau kana erdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko moztutea izan zan aizkolari bakotxaren beharra. Lan horretan, Atutxa hasikeratik mantendu zan lehenengo postuan. Holan gelditu zan klasifikazioa: Atutxa, Irazabal, Mendieta, Bihurri, Xabier Garcia "Utxu" lemoaztarra eta Zelai. Bizkaiko Aizkolari Txapelketako Bigarren Mailako finalean oster, Larrea III.ak ia minutu batetako aldeagaitik irabazi eutsan Alex Txikon lemoaztarrari. Laukizen izan zan jardunaldia, abenduaren 29an.

**Trontzan be lehenengo postua Dimakoak**

Aizkorako Bizkaiko Bigarren Mailako finalaren egun berean Bizkaiko trontza finala be jokatu zan. Larrea II.a lagun eukala, errez irabazi eban Aitzol Atutxak. Hiru bikote egoazan finalean; Larrea II.a-Atutxa, Arana-Arana, eta Mendieta-Bihurri. Zeanuriko Aranatarak bigarren postuan gelditu ziran.

**Aizol Atutxa.**

## ZIKLO-KROSA

**Manu Quintanilla igorreztarra Euskadiko txapeldun****Erredakzioa**

Abenduaren 29an, Euskadiko ziklo-kros Txapelketea jokatu zan Lezaman. Master 40 kategorian Arratiara ekari eban txapela Manu Quintanilla igorreztarrak eta Mikel Epalzak (Master 30) eta Jose Antonio Mazairak (master 50) hirugarren egin

eben bakotzak bere kategorian.

Elite mailan ez eben podiumik egin arratiarrak. Andrazkoetan, Naia Alzola ateetan geratu zan, laugarren eginda eta gizonezkoetan lehen arratiarra Julen Zubero lemoaztarra izan zan: zazpigarren egin eban honen. Zuberok bezperan Kantabriako Txapelketan laugarren egin eban.

## SOKATIREA

**Sokarri B Euskadiko sokatira txapelduna****Erredakzioa**

Abenduaren 21ean jokatu zan Ibarra Euskadiko Sokatira Txapelketako finala, lauokan. Arratian sokatira talderik egon ez arren, Arratiako tiralariak podiumean egon ziran. Gizonezkoetan, Arrigorriagako Sokarri B taldeak lortu eban txapela eta bertan, Zeberrioko Galder Gobantesek tiratzen dau. Andrazkoetan txapeldunorde geratu zan Badaiotzen, Lemoako Ruth Linaza dago.

Lehia gogorra izan zan Sokarri B eta Napurrak A taldeen artekoa. Lehenengo tiraldia, lau minututik gorakoa izan zan eta lapurtarrak irabazi eben, faltakaitik. Bigarren tiraldian barriz, bizkaitarrak nagu-

situ ziran. Kitarakoan, Sokarri izan zan gehiago, urrea lortuz. Napurrak Ak eta Ibarra Bk osotu eben podiuma.

**Badaiotz bigarren**

Badaiotz taldea munduko txapelduna bazan be, Euskadikoan bigarren postuagaz konformau behar izan zan. Taldea barriz doa eta

esperientzia handiko tiralariakaz batera, tiralari barriak be sartu dira aurten. Dana dala, behetik gora egin dabe eta Ruth Linaza pozik agertu zan lortutako bigarren postuagaz.

Andrazkoetan, txapela etxean geratu zan, Ibarra A taldeak irabazita. Bigarren Badaiotz izan zan eta Ibarra Bk osotu eban podiuma.

**Galder Gobantes eta Ruth Linaza.**

## FUTBOLA

**Arratia bosgarren****Ainhoa Duñabeitia**

Arratia futbol taldeko andrazkoak bosgarren postuan amaitu dabe 2013. urtea, 18 puntugaz hain zuzen be. Hurrengo neurketea urtailak 5ean izango da Urbietako zelaian arrastiko 18:30ean; 11. postuan dagoan Tolosa taldearen kontra.

Arratia taldeko gizonezkoen lehen taldea be bosgarren doa

sailkapenean, 23 puntugaz. Abenduaren 21ean jokatu eben neurketan 3 puntuak galdu ebezan arratiarrak, Begoñaren kontra huts eta bat galdu ondoren. Hurrengo jardunaldian etxean jokatuko dabe Lekeitioren aurka.

**Bigarren taldekoak zortzigarren**

Arratia gizonezkoen bigarren taldeak, aldiz, 8. postuan esan deutso agur 2013ari. Abenduaren 21ean bana egin eben Zaldibarraren Zaldia B taldearen aurka. Hurrengo norgehiagokea etxean izango dabe Lemoaberriren kontra, hilaren 11n.

## ERRUGBIA

**Zekorrek hirugarren****Ainhoa Duñabeitia**

Arratik Zekorrek RTK sailkapeneko goiko postuetan amaitu dau urtea, hirugarren postuan hain zuzen be. Hilaren 21ean, Iruñian izan eben partidua Iruña RCren aurka. Neurketa ederra egin eben arratiarrak, 10 eta 22 irabaziz. Hurrengo norgehiagokea etxean izango dabe, urte barri honetako hilaren 4an, Hernani taldearen kontra.

**begitu**publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115**www.begitu.org**Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

*Pinturas Arratia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

**ZEKUTZE**  
JATEXEA  
Sabin Arana, 24  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejateak@hotmail.com

umean moda  
**sew**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

**AKITEGIA**  
**GAY & LORA**  
IGORRE

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DERU KONTRUETAN  
ONDASUN HIRIGIZENEN  
ASIGURUETAN  
Beltra Arana, 3-3. floor. 94 671 71 61 - Fax: 94 671 94 61 - 48140 IGORRE

**axular**  
kultur elkartea  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES  
Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

**ARRATIA AUTOSKOLA**  
Ikaslea eskuzkoekin zain ondorez  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: urrozak@euskalnet.net

## KIROLAK



Alex Txikon.

## Txikon desafioz desafio

### Erredakzioa

Zortzi kanaerdiko moztu eta zortzi kilometro galapan egiteko desafioan Juan Telletxea eta Santi San Miguel Alex Txikoneri nagusitu jakozan abenduaren 21ean Donezteben. Lemoztarrak ezin izan eban bikotea menperatu. Telletxeak eta San Miguelek ia minutu bi ateratsien Txikoneri.

Desafioan lemoztarrak zortzi kanaerdiko ebagi eta zortzi kilometro egin behar zituan galapan. Telletxeak zortzi kanaerdiko ebagi eta San Miguelek bederatzita kilometro galapan. Aizkoran Txikon nagusitu jakon Telletxeari, 26 minutu behar izan zituan Txikonek eta 26m 50s Telletxeak. Baina San Miguel korrikalaria da eta gainera fresko egoan aurretik aizkoran ibili barik, Txikon ez bezela. Errez irabazi eban lasterketea San Miguelek. Atzenean bikoteak ia minutu biko

tartea ateratsien Lemoakoari.

### Taula gainean

Aizkorea ikuskizuna dala argi ixten dau Txikonek plaza eta frontoietan, baina orain eszenalekuetara be eroan dau aizkorea. Izan be, Kukai jantza konpainia, Oreka TX taldea eta Kalakan musika hirukoagaz batera *Heritmo* izeneko ikuskizunean hartzean dau parte. Ikuskizun honek herri kirolak eta jantzea buztartzen ditu eta urtailaren 4an Donostian, eta zezeilaren 22an Baionan ikusteko aukerea dago.

### Udabarrian Himalaiara

Mendirako planak be baditu Txikonek eta Himalaiara itzuliko da 2014ko udabarrian. Kangchenjungan (8.516 m) bide barri bat zabaltzen saiatuko da Denis Urubko, eta Boris Dedeshko kazakhstan-darrakaz eta Adam Bielecki poloniarraz, estilo alpinoan.

## HERRI KIROLAK

# Uribe nagusi Auzuneen Arteko Herri Kirol Txapelketan



Partaideak Zeanuriko frontoian.

Argazkia: Miren Idigoras.

### Jon Urutxurtu

Igaz legez, aurten be Uribe izan da Zeanuriko Auzuneen arteko Herri Kirol Txapelketearen irabazlea. Saikapen orokorrean, Alzustagaz bardinduta amaitu baeban be, sokatiran jokatu eben bi auzuneak 2013ko txapelduna nor izango zan eta azkenean Uribe nagusitu zan.

Abenduaren 28an, jokatu zan Zeanuriko 5 auzuneen arteko lehia, jentez gainezka egoan Ibarreta frontoian. Alzustak, Asterriak, Plazeak, Uribek eta Undurragak

neurtu ebezan indarrak; igaz baino auzune bat gitxiago, Otzerimendikoak ezin izan eben talderik osotu eta.

Bost modalidadetan lehiatu ziran: txokor-batzean, txingeroaten, zakua eroaten, ingudean, trontzan eta aizkoran. Aizkoran izan ezik, beste proba guztietan andrazko batek eta gizezko batek osotutako bikoteak parte hartu behar izan eben. Talde bakotxa 11 kirolarik osatzen eben.

Azken probara arte 3 taldek izan eben txapela eskuratzeko aukerea: Alzustak, Plazeak eta Uribek,

eta azken proba —aizkolariena— amaitu ostean, Uribek eta Alzustak puntu kopuru berbera pilatu eben: 21. Antolatzaileak zera ebatzi eben: irabazlea sokatiran ebatzea. Eta garaipena Uribera joan zan.

Saikapen orokorra era honetan geratu zan: 1.a Uribe, 21 puntugaz; 2.a Alzustak, 21 puntugaz; 3.a Undurraga, 18 puntugaz; 4. plaza, 16 puntugaz, eta 5. Asterria, 14 puntugaz.

Aurreko egunean, hilak 27, Zeanuriko umeak osatutako 6 taldek antzerako txapelketea jokatu eben.



## BERBALDIA

**Aitzol Altuna: "XII. mendera arte euskaldunak burujaubeak ziran"****Erredakzioa**

Baskoien eta euskeraz mintzatzen ziran beste tribuen historia eta Nabarrako erresumarena kontau eban Aitzol Altuna historiazale galdakaoztarrak Lemoako Karabie Gaztetxean abenduaren 23an emondako berbaldian. Euskaldunon estadia Nabarra dala, XII. mendera arte euskaldunak euren buruaren jaube izan ziralta eta Nabarrako erresuma euskaldunen estadia zala defendatu eban bertan.

**Euskerarik ez, estadu barik**

XI. mendean Nabarrako erresuma zan Euskal Herria. Altunaren eretxian, estadu propioak mantentidu egiten dau hizkuntzea eta gaztelauak lurra konkistau ahala, euskerea galtzean joan zan bertan. "Geure buruaren jaube izanda, euskereak badauka etorkizunik. Gaur egun be, munduan, estadu bako hizkuntzak txarto dagoz eta estadia daukienak sendo" esan eban. Adibide moduan aitatu zi-

tuan, liturgian baino geratzen ez zan hebraierera, Israel estadia sortu zan arte; edo latina, desagertuta dagoan hizkuntzea, Vatikanon estadian izan ezik. Nabarran be Foruak galdu ziranean, euskerea galtzean joan zala esan eban.

**Foruak: Nabarrako estadua-  
ren legea**

Foruak euskereak berak baino gehiago gordetzen dabela euskaldunon izakerea esan eban Altunak. Foruak Nabarrako estadia legeak ziran, piriniar eskubidea. "Foruak lege *consuetudinarioak* dira, hau da, ohituraren oinarritzen diranak. Behetik gora sortutakoak, eta ez goitik behera". Honek potentzialidade politiko handia dauka gaur egun "herriak kontrolau behar daualako estadia eta ez estadia herria".

Hizlariaren arabera, Foruak, lur komunalak eta auzolana dira euskal idiosinkrasiaren elementu osagarriak, herria edo kolektibidean oinarritzen da berau eta. Pirinioar eskubide honek

ekarpen batzuk egin zituan, gaur egun ondino bizirik dirauenak. Holan auzo batzar edo kofradien bidezko funtzionamentua dauka Zeanurin eta Diman; *Habeas Corpus* edo epailearen aurrera eroan beharra be antxinako lege honeetatik dator. Ez zan torturea onartzen eta etxe eta eleizetara ezin zan polizia sartu.

Foruak defendatzearen altxau zan herriko jentea askotan historian zehar. Eta horregaitik egin eban burrukan karlistak. Bilbo eta Donostia uriburuak kenduta, karlistak izan ziralta nagusi Bizkaia eta Nabarrako lurraldeetan esan eban Altunak.

**Arratia Nabarrako merindade**

XIX. mendera arteko mapetan, Nabarra izenagaz, edota Bizkaia sartaldeko eremua eta Nabarra gainontzekoagaz izentatzen da gaur egun Euskal Herria legez ezagutzen dogun lurra.

X. mendean amaieran, Bizkaia baeukan itxura administratiboa, Altunaren esanetan. Eta Bizkaia nuklear haretan lau merindade egoazan: Busturia, Uribe, Markina eta Arratia. XVI. mendean, Bediak eta Lemoak bat egin eta beste merindade bat sortu eban.

Pedro Perez de Abendañok Igorreko Urkizu torrea ereigi eban XI. mendean azken aldera. Eta Arratiaren "nabarrotasunaren" beste lekukoa San Migeleri kultoa da, Altunaren eretxian. Izan be, Aralarko San Migel da Nabarrako zaintzailea eta "Arratia da Bizkaian San Migel ermita gehien" daukan eskualdea.



Aitzol Altuna Lemoako Gaztetxean.

## MAHAI-INGURUA

**Zeanuri Behatokia sortu dabe,  
Sabin Intxaurrearen oroimenez****Erredakzioa**

Alkartasuna Fundazioaren eskutik, Sabin Intxaurrearen oroimenez, Zeanuri Behatokia antolatuta da. Behatoki honen helburua ezkerreko abertzaletasunaren inguruan hausnarketea egitea da eta "Euskal Herria eraikitako indar abertzale aurrekoak daukiezan erronkak eta aplikau behar dabezan politiken gainean hausnartzea". Behatoki hau urtero abenduaren amaieran antolatu gura da, Intxaurrea hil zan egunaren inguruan.

Hil zaneke hirugarren urteuren honetan, Zeanuri Behatokia Zeanuriko Kultur Etxean izan zan abenduaren 26an eta hausnartu zan gaia "Garapen iraunkorra eguneroko lan politikan" izan zan. Saiolari hasikerea

Irati Urien eta Irati Astondoak emon eutsien eta aurkezpenaren ostean bertsolarien txandea izan zan, Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia kantau zituen bertsokak. Ondorengo mahai-inguruan Iñaki Ezkurra, Iñaki Barcena, Marian Beitalarrangoitia, Manu Marañon eta Dani Maeztu izan ziran. Moderatzaile lanetan, Luis Mendizabal, eta tratatu ziran gaien artean, barritagariak, garratza, AHTa eta Fracking-a, egon ziran.

Bertsolariak eta ondorengo afariak zarratu eban ekitaldia.



## MUSIKEA

**Eizu Kiñuk Azken zapatu  
dantza antolatu eban****Erredakzioa**

Abenduaren 28an, Eizu Kiñuko gazteak, Igorreko Udalgaz alkarlanean, *Azken zapatu dantza* jaialdia anto-

latu eban. Gaua Bieskas taldeagaz hasi, jarraian Punto Muerto eta Nik Khaos taldeakaz goia jo eta DJ Ander Lekuegaz ezin hobeto amaitu zan.

**Oparitu BEGITU-lagun!**

\* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegiaren eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€  
edo 75  
Euroren truke



## LIBURUA

# Agozko komunikazinarako estrategiak erakusten dituan liburua kaleratu dau Manu Marañonek

### Erredakzioa

Manu Marañonek jentaurrean berba egiten lagunduteko liburu bat argitaratu dau *Jendaurrean hitz egitea* izenburupean. Liburuaren edizino bi dagoz, euskeraz eta gaztelerez. Anaya Edizioak publikatu dau Oberon "para torpes" bilduman.

Liburu sano praktikoa da eta bertan diskursoaren egitura eta ordena, formulazino egokia eta diskursoaren eraginkortasuna eta ikus-entzunezkoen erabilera sakon landuten dira. Gorputz mintzaira eta abotsa be jagon beharreakoak dirala eta atal bana emoten deutse Marañonek liburuan. Gainera, jentaurrean berba egiteko beharrezkoak diran estrategiak be erakusten ditu, edota nerbioak,

beldur eszenikoa eta ansiedadea zelan kudeatu. Egileak komunikabideen aurrean baliatzeko gomendioak be eskeintzen ditu.

Liburua ez da bakarrik profesionalentzat, agozko komunikazinoan danok erabili behar izaten dogu egunero. "Agozko komunikazinoan jentaurrean berba egitea baino gehiago da. Bilerak kudeatzeko, entzuten jakiteko, erantzun egokiak emoteko, negoziokoak egiteko... hainbat gauzatarako baliogarria da liburu hau" dino Marañonek.

### Formakuntza tailerrak

Manu Marañon dimoztarrak enpresa eta irakaskuntza munduan emoten dau formazinoan. Baita erakundeetako beharginai, alderdi politiko, sindikatu zein gizarte eragileai be. Ikastarook tailer formatoakoak dira.



Manu Marañon

## LEHIAKETEAK

# Kanteik-ek eroan eban film labur onenaren saria Igorreko lehiaketan

### Erredakzioa

Lau sari egon ziran. Film labur onenari saria *Kanteik* filmarentzat izan zan eta talde egileak 800 euroko saria jaso eban. Egile barrien lanik onenari saria Ibai Pujanaren *Ametsa* filmak jaso eban eta Arratiako egileen lanik onena *Leioa* izan zan epaimahaia-aren eretxiz. Gazteen kategorian (25 urte artekoa) Igorreko ludotekako taldeak eroan eban saria *Irunsi dana* filmagaitik. Guztira 11 lan aurkeztu ziran. Gazteen zortzi film egon ziran lehian, nagusien mailan, barriz, hiru.

Joseba Rodriguezen zuzendaritzapean, Juan Totorikak, Iban Uriartek, Borja Estankonak eta Ibon Izak osotutako taldeak, *Kanteik* film laburra aurkeztu eben. Coen anaiei *O Brother* filma eredu hartzean dauan parodia tragiko bat da. "Zenbat gara" kantutik sortu zala idea dino Ibon Izak. Indusiko Aritz Olabarri da maskaragilea. "Igaz maskara horreekaz egindako filmaren bigarren partea edo".

Erreferentzia pilo bat eta mezu zabala dauka inor indiferente itxiko ez dauan film honek.

### Bardintasunaren alde gazteenak

Igorreko ludotekako taldeak eroan eban gazte mailako saria. *Irunsi dana* filmak genero estereotipoen kontrako film laburra da. Saria jasoteko neska-mutikoak morez jantzita agertu ziran. "Bardintasunaren alde gagoz, persona libreak gara" esan eban taldeko batek.

Abenduaren 30ean banandu ziran Lasarte Aretoan Luzetu

Barik, Igorreko film laburren lehiaketako sariak.



Joseba Rodriguez saria hartzean.



Ludotekako taldea.

## DUNBA

# Areatzako eskolan museo txiki bat dago

Artea: gure hiruhilabeteko lana.

### Areatzako LH 3. mailako ikasleak

Areatzako LH3koak, kurso hasieran gai bat aukeratu genduan eta gai hori artea izan zan. Artearen barruan gai asko dagozanez, pintura aukeratu genduan.

Lehenengo margolariak eta koadroak aztertuten hasi ginan.

Bikoteka margolari bi emon euskuezan, ondoren hareen biografiak egin eta margolariak munduko mapan kokatu genduzan. Denporearen marrak be egin genduzan binaka, gero danok batera beste bat egin genduan margolariak jaiotze dataren arabera

kokatuteko.

Ondoren, koadro bakotxaren prezioa aztertu genduan, koadro merkeenetatik garestienetara ordenetako eta horretarako dollarrak eta librak eurotara pasau genduzan.

Urri bigarrenaren 24an Arte Ederretako museora margolanak, eskulturak... ikustera joan ginan, alde zaharrean hasi eta barrian amaitu genduan bisitea.

Leioako Arte Ederretako ikasle bat etorri zan guk prestatutako galderak erantzuten, bera etorri aurretik lan handia egin genduan galderak prestatuten eta sailkatu-

erakusten.

Plastikako orduetan, margolari bakotxaren koadro bat hartu eta horren kopia bat egin genduan eta orain pasilloko horma baten eskegita dagoz guk egindako koadroak. Koadroakaz enkante bat egingo dogu gure artean, diru



Areatzako ikasleak Bilboko Arte Ederretako museon.

faltsuagaz, horretarako marko batzuk egiten gagoz koadroaren neurriak hartuz, hau da perimetrotia erabiliz.

Gabonetako oportetarik etorri eta gero, pentsauta daukagu berbaldi bat egitea guk landu doguna azalduteko gurasoai eta ikastetxeko lagunai.

## AGENDEA

### URTAILAK 2

#### ARANTZAZU

15:00etan, urtekera Max Center-eko bolalekura eta gero zinera.

#### DIMA

19:00etan, Musika Eskolako Gabonetako ekitaldia eleizan.

#### LEMOA

19:30ean, Askapeneko brigadistak emondako berbaldia "Venezuela". Gaztebean.

#### ZEANURI

18:00etan, *Tierra prometida* filma Kultur Etxean. Gero, Zeanuriko III. Ipuin Lehiaketaren sari banaketea.

### URTAILAK 3

#### AREATZA

Eskupelota alkarteak antolatua, Banakako trapuzko pelota maratoia 11 urtetik gorakoentzat.

#### DIMA

19:30ean "Diman etxean gura doguz" Herrirak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazioa herriko plazan.

#### BEDIA

09:30ean, urtekera Gasteizera izotz pista.

#### IGORRE

11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea eta Zaztarrakentailerrak.

19:30ean, Areatzako Bandak Erregetako kontzertua. Lasarte Aretan.

#### LEMOA

10:30ean, BECeko Umeen Gabonetako Parkera urtekera 5 urtetik gorakoentzat ludotekan.

#### ZEANURI

18:00etan, pelota eta pala partiduak frontoian.

### URTAILAK 4

#### ARTEA

23:00etan, Babel Covers eta Oihan Vega Dja frontoian.

#### LEMOA

12:00etan, Harriketarrak Gazte Asanbladak

antolatuta, truke azokea plazan. 18:30ean, pintxo lehiaketea Gaztebean.

#### ZEANURI

18:00etan, pelota eta pala partiduak frontoian.

### URTAILAK 5

#### BEDIA

18:00etan, Erregeen Kabalgatea. Aurretik txokolata bananduko da.

#### DIMA

16:00etan, Dimako korua zahar-etxeetan.

#### IGORRE

18:30ean, Erregetako Kabalgatea Mandoia kalean.

#### LEMOA

18:30ean, Parrokia-katekesi taldeak antolatuta, Errege Kabalgatea udaletxean.

23:00etan, Harriketarrak Gazte Asanbladak antolatuta kontzertua: Stenkeik Band. Karbie Gaztebean.

### URTAILAK 7

#### BEDIA

Hilaren 10era arte, 17:00etatik 20:00etara ludotekarako jostailuak batzea. Liburutegian.

### URTAILAK 13

#### LEMOA

Hilaren 24ra arte, Autodefensa Ikastaroan izena emateko epea zabalik. Udaletxean.



## Kibubu hilaren 4an Igorreko Kultur Etxean

"Errespetua eta askatasunaren inguruko ikuskizuna" da *Kibubu* umeentzako antzezlan. Hilaren 4an, zapatua, izango dabe Arratiako umeak berau ikusteko aukerea Igorreko Lasarte Aretan arrastiko 17:30ean.

Xebasek eta Cocók bikote artistikoa osotuten dabe, biak dira pailazo. Ilusinoak gainezka daukien arren oraindino ez dabe arrakasta nabarmenik lortu. Ikuskizun barria prestatzen dabizala, Xebasek egiazko gorila bat erostea ebatzi dau, hazur-haragizkoa. Sinistuta dago gorila menpean hartu eta numeroak erakutsi ezker, sekulako txalo zaparradea jasoko dabela. Halanda be, gorilea ez da izango egunen joanean gehien ikasiko dauana; Xebasek eta Cocók inoz ahaztuko ez daben ikasgaia jasoko dabe.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

#### TXAKURKUMEAK SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

#### PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

#### ETXEA ALOKATZEKO EDO

#### SALTZEAKO

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 72 50.

### DANERIK

#### AREATZAN ETXEA ALOKAIURUAN

180 m<sup>2</sup> dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau

solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

#### INGELESEZKO ESKOLAK

Ingeleseko eskola partikularrak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

#### TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

#### PISUA SALGAI EDO ALOKAIURUAN

70 m<sup>2</sup>ko pisua salgai edo alokairuan Areatzan, parke aurrean. Gela bi, sukaldea, komuna eta egongela. Interesdunak 665 727 881 telefonora deitu.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

1

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera zinemarako.**

Ibon Iza (Dima)  
Kubulu Euskaltegia (Igorre)



2

**Axpe Goikoa jatetxeak emondako 3 botilako txakolin kajatxo.**

Maitane Diez (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Mamuaren onomatopeia. Pozoi.
- 2.- Jazoera, gertaera. Frutu bat.
- 3.- Birritan, umeen berbetan, ura. Harro, apatz. 4.- Jardun. Bokala.
- 5.- Andrazkoen izena. 6.- Bat erromatar. Gariaren alea hauts eginda. 7.- Gatz asko. Sanskritoko silaba sagradua.
- 8.- Gorputz atal bat. Ezen, ze. 9.- Huts. Zintzo.

### GOITIK BEHERA

- 1.- Umeen berbetan, ura. Aurreko urtean. 2.- Asko. Garau, bihi.
- 3.- Erdiko bokala. Guzuz. 4.- Bokala. Sarrera. Oxigenoa. 5.- Aberastu. Bokala. 6.- Oihartzuna irudikatzen dauan Ninfa. Tentel, kokolo. 7.- Zelan. Otoitza amaitzerakoan.



Topau zazpi hegazti basatiren izenak.

Z	O	R	I	T	O	K	U	L	A
A	R	G	O	R	R	I	A	K	U
U	B	I	B	L	A	C	K	A	R
K	I	Z	K	A	B	I	L	A	R
U	K	A	Z	I	Z	T	A	M	E
G	A	N	I	B	E	L	O	D	U
U	R	A	L	I	J	U	K	R	A
Z	E	B	A	L	T	Z	A	L	I
K	I	A	R	A	U	K	I	M	A
O	Z	T	R	A	K	O	L	E	Z
I	E	P	A	T	S	A	D	A	Z
M	A	R	R	A	D	U	N	A	G
U	S	A	P	E	L	A	U	R	E
S	L	E	G	H	O	R	N	A	L
A	L	U	P	A	M	E	Z	A	R

# AKI MI KO

Zorrozkiilo



## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikola

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

## Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoaren lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz  
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

## PAULA PEREZ

**Errepertorio modernoa dauka Areatzako Bandak**

Areatzako Bandak bere 30. urteurrena ospatu dau aurten, osasuntsu. Banda amateurra da, ilusinoak eta musika egiteko gogoak dira Bandea bizirik mantendutena dabenak. Kontzertu bi eskeintzen ditu egunotan. Abenduaren 30ean Areatzako eleizan Urte Amaierako kontzertua eskeini eban eta hilaren 3an Erregetako kontzertua eskeinitu dau Igorreko Kultur Etxean, Paula Perez Buenoren zuzendaritzapean. Urte amaierako kontzertuaren egun batzuk aurretik izan zan alkarrizketa hau.

Paula Perez txikitan hasi zan musika ikasten, pianoa jotzen. Pianojolea da. Euskadiko Goi Musika Eskolan Orkestra Zuzendaritza ikasi eban Enrique Garcia Asensio maisuagaz. Bere zuzendaritzapean Areatzako Banda eta Bilboko Ganbara orkestra eta korua, eta Bizkaiko zenbait koru dagoz. Musika Eskolako irakasle be bada.

**Erredakzioa****Zelan hasi zinan Areatzako Bandan?**

2011ko zezeilan hasi nintzan eurekaz. Nire ikaskide izandako batek zuzentzen eban orduan bandea, Alain Sanchok eta lana zala eta, itxi behar izan eban Areatzako. Harek esan eustan ia interesetan jatan eta ni poz-pozik. Gaur arte.

**Urte amaierako kontzertua...**

Bai. Abenduaren 30ean da, arrastiko 19:30ean. Sano pozik gagoz

urteurrena ospatzen dogulako. Egia esan, oso urte ona izan da bandearentzat. Jente gazte asko sartu da, ilusinoz beteta eta hori lujo bat da.

Banda honetan gertatzen dana oso pozgarria da. Plentziatik, Mungiatik, Barakaldotik... leku guztietatik dator jentea Areatzara zapatu goizetan Bandan jotera. Jente gazte asko etorri da eta ilusinoz gainezka gagoz. Gainera, sano errepertorio polita dauka eta gauza asko gabiz egiten. Amaiera ezin hobea, herrian ber-

tan, maite gaituan jenteagaz!

**Urte amaierako kontzertuan jente asko egoten da.**

Bai. Hauxe da jenterik gehien batzean dauan kontzertua. Herrian hiru edo lau kontzertu egiten doguz urtean, baina honetara dator jente gehien. Jentea poz-pozik etorten da, eleizea bete egiten da eta maitetasun handia jasoten dogu publikoaren aldetik. Interakzioa egoten da. Jenteak txaloak jotzen ditu Radetzkyren martxan, Gabon kantak kantau... oso emozionauta egoten da.

**Tradizino bat dago Arratian musikeari jagokonean.**

Kultura musikal handia dago Arratian. Musika Eskolea daukie Arratian eta eskola honetako irakasleak herriz herri ibiltzen dira eskolak emoten.

Eta Areatzan ikaragarria da! Hain herri txikiak eukitea hain maila oneko bandea!

**Eta sortu zanetik 30 urte eta gero bizirik dirau!**

Alkarte guztiak lez, izan ditu bere krisiak. Zuzendari barri bat heltezan dan bakotxean, jenteak pentsetan dau "eta orain? Zer egin behar dogu?" Hainbat zuzendari egon dira. Eta hori gertatzen danean, zuzendaria bandeari egokitu behar jako eta bandea zuzendariari.

**Ze ekarpen egiten deutso Paula Perezek bandeari?**

Gaztea naz, lan egiteko gogo handiz nago. Ikasketak amaitu barriak daukadaz, 2010ean amaitu nebazan. Errepertorioa be asko gustetan jata, musika modernoa, pelikuletako musika... Askotan lotzean dogu banda bat pasodobleakaz. Baina ez. Egia da publikoarentzat jotzen dogula eta gauza batzuk egin behar dirala, baina peilkuletako musika asko egiten dogu, musika moderno asko, eta nik uste dot horregaitik animau dala jente gaztea Bandara etorten. Aldaketa bat egon da, Alain Sancho eta nigaz, eta mu-

sika mota honek jentea erakarten dau. Adibidez aurten hainbat pelikuletako soinu bandak egin doguz. James Bond eta Superman pelikuletakoak, John Williamsen gauzak -John Williams jeno bat da- eta Manciniren gauzak, "La Pantera Rosa", barbarako. Sano gauza dinamikoak eta publikoarentzako efektistak. Jentea oso identifikauta sentiduten da musika honeguz. Gauza lasaigoak be badaukaguz, "Candilejas", esaterako; hau, jente nagusiari asko gustetan jako. Zeozer klasikoa beti sartzea gustetan jata, publiko osoarengan pentsatzearen.

Urte amaierako eta Erregetako kontzertuetan, danak Gabonetako kantak izango dira. Ez bakarrik Gabon kanta tradizionalak, John Lennon-en Gabonetakoa eta holangoak be bai.

**Esan deustazu jente gazte asko sartu dala Bandan. Zenbat jentek jotzen dau Bandan?**

Arratiako Musika Eskolan ika-

sitako jentea eukitea suberte handia da. Eurak segiduko dabe bandeagaz. Areatzako 15 gazte daukaguz. Herriko jente gaztea etortea handia da.

Esandako moduan urrietan boom bat egon da. Orain 40-45 lagun inguru gara.

Bagilan Piroteknia Astondoaren ikuskizun bateguz batera kontzertu bat egin genduan eta hori oso ondo etorri jaku. Su artifizialakaz kontzertua zuzenean egin genduan. Holangorik nik ez dot inon ikusi. Su artifizialakaz, grabautako musika bai, baina zuzenean jotea ez, oso gatxa dalako. Oso ondo bateratu behar dira Bandaren kolpeak pirotekniagaz. Eta nik uste dot horrek, ikuskizun horrek, jente asko animau daua. Lujo bat da holango banda bat eukitea. Gaur egun, diru laguntza gitxi eta kultura mundua kili-kolo dabil. Bandea holan mantendutea, hainbeste jente eta horrenbesteko emozinogaz... *Chapeau!*



www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net  
Zabalik 07:00 - 19:00

**ALKIZABAL**

**Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua**

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
 Amorebieta-Lemoa bidea  
 Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
 48330 Lemoa (Bizkaia)



**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala



















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
• Garraio zerbitzua.